

Asier Osinalde, pertsonaien barru-barruraino iritsi nahi duen idazlea

Bere lehenbiziko liburua plazaratu du, batik bat 2012-1014 epean idatzitako hamabi ipuinez osatua

■ FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. Asier Osinalde Vidalek (Donostia, 1975) bere lehenbiziko liburua plazaratu du, hamabi ipuin dakartzan bilduma: 'Baina ez lukete han egon behar'. «Narrazio hauek guztiak pertsonen kanpoaldean abiatzen dira eta barrualdean bukatzen, hau da, azalean dute abiapuntua, baina pertsonen barnea arakatzea helburu. Izan ere, hortxe dugu gordeta benetan inporta zaigun guztia, hortxe dauzkagu giltzaketuta gure buruarekin soilik partekatzen ditugun sekretu eta esperantzak, inori sekula aitortuko ez dizkiozun bekatu eta miseriak», esan zuen idazleak atzoko aurkezpen-ekitaldian.

Liburuko ipuin gehienak 2012-

2014 urte bitartean idatziak dira. Bere buruari kemena eman nahian, lehenengo urte horretan aurkeztu izan zen sarietara, eta baita sari batzuk lortu ere: Julene Azpeitia, Bordari eta Xiriako Andonegi sarikete-tan, hain zuzen ere.

Erein etxearen bidez ateratu du bilduma. Bertako editore Inazio Mujika Iraola honela mintzatu da: «Poza ematen du lehenengo liburua argitaratzea inori. Normalean jende gazteagoa izaten da 'opera prima'-rekin datorrena. Asierri, berriz, nabari zaio heldutasuna». Ingeniaritza teknikoak ikasi du Osinaldek eta egun irakasleen irakasle ari da, Donostiako Iralen. Poemak, abestiak eta film laburrak egin ditu modu amateurrean.

Hamabi ipuinetako pertsonaia askotarikoak dira, eta pertsona arruntak: fundizioeko langile bat, jostun bat, argazkilari bat, bizitza hobe baten esperan bere herrialdetik ihes egiten duen tabernari bat, enpresaburu bat, futbol-jokalari bat, Erasmus ikasle bat, heriotzari iskin egin nahi dion lorezain bat, preso ohi bat,



Asier Osinalde, atzo Donostian. ■ LOBO ALTUNA

bizkartzain bat, maitasunaren hondarrei nola eutsi ez dakien jubilatubikote bat, txirindulari bat, alzheimerak jotako agure bat... «Eta gu bezala, haiek ere saiatzen dira egunerokoan aurrera egiten, beren atsekabe eta frustrazioekin, beren esperantza eta ametsekin, beren

seketu, beldur eta ahuleziekin», esan zuen idazleak.

Errealitate likidoa

Pertsonaia ez omen daude eroso. «Azken batean, guztiok bizi garen errealitate likido eta ezegonkor honetan orekari eusten saiatzen dira;

eta batzuek albanbrearen gainean irautea lortuko badute ere, beste batzuk erori egingo dira; badaude, halaber, burdinazko harian betiko zintzilik geratuko diren batzuk, eta baita albanbrearen gainean dabilzta-nik konturatu egiten ez direnak ere. Finean, denak daude aurrez imajinatuta ezin zuten egoera batean harapatuta, eta ez dakite patua izan den, kasualitatea edo egunero hartzen ditugun erabaki ustez garrantzi gabekak egoera horretara eramán dituen, baina ez lukete han egon behar».

Estiloari dagokionez, ba omen daude modu linealean idatzitako istorioak, baina baita ere erditi hasten direnak, bukaeratik hasten direnak eta amaierara arte elkartzen ez diren istorio paraleloak ere bai. Baita egunkari moduan idatzitakoak eta gutun bidezkoak ere. Bestalde, badira hiru elementu istorio guztietan agertzen direnak: argazkiak, ispiluak eta begiak.

Narratzailearen ahotsa ere aldatu egiten da ipuin batetik bestera, eta nahiz eta gehienak hirugarren pertsonan dauden kontatuta, badaude lehenengo pertsonan eta bigarrenaren idatzitakoak ere.

Osinalderi asko gustatzen zaio bidaiztea eta «agian, horregatik, leku dexente agertzen dira bilduma honetan. Buenos Aires azaltzen da, Menorca, Florentzia, Alemania, Ingalaterra... baina guztiak Ibar izeneko hemengo herri fikziozko baten inguruan harilkatzen dira, eta, horrela, ipuin-bildumari osotasuna eta kohesioa ematen saiatu naiz».

Hay lugares a los que solo se puede llegar en coche



Península e islas

36€

Incluye: kilometraje ilimitado, seguros y recogida en estación de tren.

Europcar



VIAJES **El Corte Inglés**

Una sonrisa de ida y vuelta

Preço "desde" por día, válido en Península e islas nacionales para mínimo 7 días de alquiler para el grupo EBMR (Fiat 500 o similar). Consulta precios para otras ciudades. Incluye: kilometraje ilimitado, CDW, THW, PAI y recogida en estación de tren. No incluye: combustible y extras. Gestión de gestión (00€ nacional) por reserva no incluidos. Plazas limitadas. Consulta condiciones y precios para alquileres de otros grupos de vehículos y terrenos de alquiler. Información de datos por consión, THW (cobertura pacal por todo del vehículo), PAI (seguro personal de accidentes). Consulta condiciones. C.I.C.M.A.59, HERMOSILLA - 112 - MADRID.